


Maider Iruretagoiena Albisu

F maila • 3 aipamena

Kaixo! Maider Iruretagoiena Albisu naiz, 8 urte ditut eta 2011ko maiatzaren 23an jaio nintzen. Beasaingo Alkartasuna lizeoan ikasten dut. Nire zaletasunak kirola eta dantza dira. Irakurtzea, idaztea eta musika ere asko gustatzen zaizkit. Asko poztu naiz nire ipuina gustatu zaizuelako eta aurtengo Beasaingo idazlehiaketan aipamena jaso izanagatik. Mila esker!



ANE ETA UR AZPIKO BIDAIA

Orain dela hiru urte Ane izeneko neska batek ur azpira joan nahi zuen.

Behin eskolatik atera eta liburutegira joan zen eta zer topatuko! Itsasoko liburu zahar bat!. Anek liburua ireki zuen, liburua begiratzen zuen bitartean bere lagun Maite azaldu zen.

Ane eta Maite liburua irakurtzen ari zirela, liburua mugitzen hasi zen eta bat-batean liburu barrura sartu ziren. Bi lagunak urpeko batean azaldu ziren.

Eta Anek esan zuen:

- Non gaude?
- Urpeko batean!

Ane poz-pozik jarri zen, ur azpian zegoelako. Animalia pilo bat ikusi zituzten. Maite liburu bat zegoela konturatu zen. Liburua hartu eta irakurtzen hasi zen, liburutik urpeko kapitain bat atera zen. Maitek liburua lurrera bota eta Anerengana joan zen korrika, Ane hurbiltzen ausartu zen. Kapitainak Maite hurbiltzeko esan zion, Maitek kasu egin zion.

Eta kapitainak galdetu zion:

- Irakurtzea gustatzen zaizu?
- Orain bai.

Eta handik aurrera abentura bat bizi nahi zutenean liburutegira joaten ziren.

Zu joaten al zara liburutegira?